UNE-EN ISO/IEC 17025:2017 ARAUAREN AURREKO ANALISI ORGANOLEPTIKO EGIAZTATUAK EGITEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, HONAKO IRISMEN HONEKIN: ARABAKO TXAKOLINA JDB, BIZKAIKO TXAKOLINA JDB ETA GETARIAKO TXAKOLINA JDB, 2022-2025 KANPAINETARAKO

1.- SARRERA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1306/2013 (EB) Erregelamenduak, Nekazaritza Politika Bateratuaren finantzaketari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoak, 90. artikuluko 3. apartatuan ezartzen du produktuaren baldintza-agiria urtero egiaztatu beharko duela, bai ardoaren elaborazio-prozesuan zehar bai ontziratze-prozesuan edo horren ondoren, 2. apartatuan zehaztutako agintaritza eskudunak edo adostasun-produktuen ziurtapen-organo gisa jarduten duten kontrol-organismo batek edo batzuek.
Hazi, aurreko paragrafoan adierazten den kontrol-organismo gisa, Batzordearen 2018ko urriaren 17ko 2019/34 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 15.3 artikuluaren arabera, 17065:2012 Araua bete behar du, eta Arau horren arabera egiaztatuta egon.
Halaber, Arauaren 6.2.2 puntuan (kanpoko kontratazioari buruzkoa) ezartzen da saiakuntzetarako Hazik azpikontratatutako laborategiek 17025:2017 Araua bete behar dutela (Betekizun orokorrak saiakuntza- eta kalibrazio-laborategientzat).

Fundación HAZI Fundazioaren Kontrol eta Ziurtapen arloa Arabako Txakolina, Bizkaiko Txakolina eta Getariako Txakolina jatorri-deituren kontrola gauzatzeko organo arduraduna da.

Ardoen jatorri-deiturek beren baldintza-agirietan deskribatu behar dituzte ezaugarri organoleptikoak, eta ziurtapen-erakundeak horiek betetzen direla egiaztatu behar du.

Hazik ez dauka saiakuntza sentsorialeko laborategirik; hortaz, azpikontratatu behar ditu.

Hazik azpikontratatutako laborategien gaitasun teknikoa erakutsi behar du (ENACen 13. ohar teknikoa, 6. berrik.), eta lehentasunezko metodo gisa egiaztapena aipatzen da.

Laborategi horiek UNE-EN ISO/IEC 17025:2017 erreferentziazko Arauaren bidez egiaztatuta egon behar dute, ardoen saiakuntza sentsorialak egiteko, honako irismen honekin: Arabako Txakolina JDB, Bizkaiko Txakolina JDB eta Getariako Txakolina JDB.

2.- PLANTEAMENDUA

Helburua da UNE-EN ISO/IEC 17025:2017 Arauaren bidez egiaztatutako laborategi bat kontratatzea, Arabako Txakolina JDB, Bizkaiko Txakolina JDB eta Getariako Txakolina JDBren analisi organoleptikoak egiteko.

- Kontratatutako zerbitzuaren epeak:

Laginak laborategian jasotzen direnetik, 4 aste balioduneko epea izango dute emaitzak emateko, justifikatutako kasuetan izan ezik (dastaketa egiteko lagin nahikorik ez izatea, eta antzekoak).

- Lanaren *timing*a:

Lana ezarritako denboran egin ahal izateko, Hazik *timing* hau proposatzen du:

- 2022ko abendua eta 2025eko abendua bitartean, HAZIk bidalitako laginak ebaluatuko dira sistematikoki, eta, ondoren, egiaztatutako txostenak prestatuko dira.